

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE POLITIKEN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 30/2020 Foru Dekretua, irailaren 22koa. Onestea aldi baterako eten dadila Kontseiluaren uztailaren 24ko 59/2007 Foru Dekretuaren 58.3 artikulua aplikazioa, foru dekretu horren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren langileen lan baldintzak arautzen dituen bigarren erabakia onetsi zen**

COVID-19k eragindako osasun krisiak aldaketa nabarmena eragin du egoera ekonomikoan eta zerga sarreraren bilketan.

Arabako Foru Aldundiak egoera ekonomiko hori zuzenduko badu, saihestezina da gastua lehenesteko neurriak hartzea. Aldundiak, erakunde gisa, zerbitzu publikoak behar bezala artatzeko betebeharra du, eta bitarteko mugatuek gastua eraginkorragoa izatea dakarte, ezinbestekoak ez diren partidetan edo haren zerbitzuko langileengan eragin negatiborik ez duten partidetan.

Egoera horren ondorioz, foru sail guztiek beren gastu partidak egituratu beharko dituzte, eta, ildo horretan, I. kapituluaren (langile gastuak) egoera ere aztertu beharko da.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duenak, honako hau xedatzen du 38.10. artikuluan:

“Itunak eta akordioak beteko direla bermatzen da, salbu eta, salbuespenez eta egoera ekonomikoaren funtsezko aldaketa baten ondoriozko interes publikoko arrazoi larriagatik, administrazio publikoetako gobernu organoek dagoeneko sinatuta dauden itunak eta akordioak betetzea eteten edo aldatzen dutenean, interes publikoa babesteko behar-beharrezkoa den neurrian.

Kasu horretan, administrazio publikoek sindikatuei jakinarazi beharko diete zergatik eten edo aldatu diren.

Paragrafo honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ulertuko da, besteak beste, egoera ekonomikoaren funtsezko aldaketaren ondoriozko interes publikoko arrazoi larria dagoela, administrazio publikoek doikuntzarako, kontu publikoak berronkatzeko edo ekonomia eta finantza izaerako neurriak edo planak hartu behar dituztenean aurrekontu egonkortasuna edo defizit publikoaren zuzenketa ziurtatzeko.”

Manu horrek funtsezko alderdi gisa ezartzen ditu hura aplikatzeko gertatu behar diren inguruabarrak: administrazio publikoek doikuntzarako, kontu publikoak berronkatzeko edo ekonomia eta finantza izaerako neurriak edo planak hartu behar dituztenean, inguruabar ekonomikoaren funtsezko aldaketa gertatzea, aurrekontu egonkortasuna edo defizit publikoaren zuzenketa ziurtatzeko.

Gaur egun bizi den egoera ekonomikoak -denboran luzatuko dena diru sarrera fiskalen beherakadaren ondorioz, BPGren jaitsieraren ondorioz eta beste adierazle ekonomiko batzuen ondorioz- agerian uzten du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren manu horretan aurreikusitako egoeran gaudela, eta, beraz, dagoeneko sinatuta dauden itunak eta akordioak bertan behera utz daitezkeela, behar bezalako proportzionaltasunez, erakundearen finantza egoera babesten laguntzeko eta zerbitzu publikoak behar bezala ematen direla ziurtatzeko.

Egoera horren aurrean, ezinbestekoa da neurri ekonomikoak hartzea sail guztiek beren partidak diru sarreraren murrizketa kontuan hartu gabe gauzatzen badituzte gertatuko litzatekeen defizita zuzentzeko.

59/2007 Foru Dekretuak (uztailaren 24ko Diputatuen Kontseiluarena, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea erakunde autonomoaren zerbitzuko langileen lan baldintzak arautzen dituen bigarren akordioa onesten du) 58.3 artikuluan karrerako funtzionario izateari uko egiteko pizgarriari dagozkion primak arautzen ditu. Prima horiek gastu kontzeptu garrantzitsua dira I. kapituluaren (langileen gastuak) aurreikusitakoaren artean.

Egoera ekonomikoari aurre egiteko doikuntza neurriak hartu behar direnez, aipatutako primen garrantzi ekonomikoak justifikatzen du horiek etetea.

Etete hori aldi baterako dela planteatu behar da, neurria justifikatzen duten inguruabar ekonomikoei jarraiki, eta neurria indarrean jartzen denetik urtebeteko epean berrikusiko da, kontuan hartuta inguruabar ekonomikoek neurria mantentzea edo baliogabetzea justifikatzen duten.

Gizarte Politiken saileko diputatuak proposatuta, eta kontuan hartuta Foru Aldundiko Sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretua (Diputatu Nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatua), eta Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 44/2017 Foru Dekretua (Gizarte Zerbitzuetako Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretua aldatzen duena eta Gizarte Zerbitzuetako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duena),

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldi baterako etetea Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 24ko 59/2007 Foru Dekretuaren 58.3 artikulua aplikazioa. Dekretu horrek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea erakunde autonomoaren zerbitzuko langileen lan baldintzak arautzen dituen bigarren akordioa onetsi zuen.

Bigarrena. Etete hori urtebeteko epean berrikusiko da, indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita, kontuan hartuta inguruabar ekonomikoek neurria mantentzea edo baliogabetzea justifikatzen duten.

Hirugarrena. Foru Dekretu honek 2020ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 23a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*

**EMILIO SOLA BALLOJERA**

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*

**ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ**